La pared exterior del frontón de Elcarte luce un mural en homenaje a las mujeres del pueblo, una iniciativa del Ayuntamiento de Berrioplano en colaboración con el concejo. Se presentó el 25 N, con motivo de la celebración de Día Internacional de la eliminación de la violencia contra la mujer. Estuvo presente su autor, el grafitero **Ibai Uribe**, quien explicó cómo realiza su trabajo y qué técnicas emplea. La idea de hacer un mural nació de los y las jóvenes del concejo, que han participado en



la creación y en la elección del boceto final. El mural representa el trabajo invisible de las mujeres para mantener vivos los pueblos: antes, en el campo y, ahora, conservando las tradiciones a través del deporte rural. El mural puede contemplarse desde el camino de la Vía Verde del Plazaola que discurre cerca del pueblo. La presentación concluyó con un pequeño aperitivo y el reparto de un obsequio (una mochila y un monedero) a las personas que se acercaron al frontón.

EUSKERA EUSKARA

ESCOLARIZACIÓN EN EUSKERA / HAURRAK EUSKARAZ ESKOLATZEA

Resuelve tus dudas de la mano de una experta

Si tu hija o hijo está en edad de comenzar en la escuela y te planteas la posibilidad de matricularle en el **modelo D** (euskera como lengua vehicular), o si ya está estudiando en el modelo D y necesitas asesoramiento, acude al café-tertulia que se celebrará el **15 de enero en el Centro cívico María Domínguez de Artica a las 17:30**. La profesora de la UPNA **Paula Kasares**, doctora en sociolingüística y una de las mayores expertas en Euskadi y Navarra en la socialización lingüística de los niños y las niñas, será la encargada de aconsejar y resolver dudas. La actividad es gratuita y habrá servicio de guardería, aunque será necesario inscribirse previamente en el teléfono **012 (948 012 012)**. Más información en: euskara@berriobeiti.eus.



Argitu zure zalantzak aditu baten eskutik

Zure seme-alaba eskolan hasteko adinean badago eta **D ereduari** matrikulatzea pentsatzen ari bazara (euskarazko irakaskuntza), edo haurra dagoeneko D ereduari bada eta aholkularitza behar baduzu, zator **urtarrilaren 15ean** egingen den **kafe-solasaldira**. **Artikako María Domínguez Gizarte Etxean** izanen da, **17:30ean** hasita. Paula Kasares NUPeko irakasleak, izan ere, aholkuak eman eta zalantzak argituko ditu. Doktorea da soziolinguistikan eta Euskal Herriko aditurik handienetako bat haurren sozializazio lingüistikoan. Jarduera doakoa da eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da, baina aurrez **012** telefonoan eman beharko da izena (**948 012 012**). Argibideak: euskara@berriobeiti.eus.

MINTZAKIDE PROGRAMA / PROGRAMA MINTZAKIDE

Mintzamena taldean lantzeko

Azken da Berriobeitiko udalerrian Mintzakide programako 2025-2026 denboraldia. Urtarrilean, berriz ere, izena emateko epea irekiko da programan interesa duten guztiendako eta izena ematek izan ez dutenendako. Bi talde daude: Berriobeitiko eta Artikakoa. Aurten ere, mintzakide berriak dituzte. Taldekideak astean behin elkartzen dira denetarikoa gaiez euskaraz aritzeko. Euskaraz talde txikietan hitz egin edo mintzamina landu nahi baduzu, urtarrilean beste aukera bat izanen duzu izena emateko. Jo ezazu Euskara Zerbitzura eta aukeratu bi taldeetako bat: Artikakoa edo Berriobeitiko. Zator!

634515384 / 948303129 / euskara@berriobeiti.eus



Practica euskera en grupo

La temporada 2025-2026 del programa Mintzakide en el municipio de Berrioplano ya está en marcha. En enero se abrirá un nuevo plazo de inscripción para todas aquellas personas que estén interesadas en el programa y no hayan podido apuntarse. Hay dos grupos, el de Berrioplano y el de Artica, que este año han incorporado a sus filas nuevos "Mintzakides". Sus participantes se reúnen una vez a la semana para hablar en euskera sobre todo tipo de temas. Si quieres hablar o practicar euskera en pequeños grupos, tienes una nueva oportunidad en enero para inscribirte. Ponte en contacto con el Servicio de Euskera y elige uno de los dos grupos: el de Artica o el de Berrioplano. ¡Ánimate!

634515384 / 948303129 / euskara@berriobeiti.eus

CICLO FAMILIA + EUSKERA / FAMILIA + EUSKARA ZIKLOA

Los juegos tradicionales y los juguetes en euskera atraen a las familias

Los talleres de juegos tradicionales organizados por el ciclo 'Familia+Euskara' tuvieron este año muy buena acogida, al igual que la exposición de juguetes que, como viene siendo habitual, tiene mucho éxito entre las familias. En los talleres de juegos, padres y madres jugaron con sus hijas e hijos, aprendieron juntos, practicaron y, sobre todo, se lo pasaron muy bien. Por su parte, la muestra de juguetes en euskera se ha convertido en un clásico en las semanas previas a la Navidad. La exposición fue visitada por numerosas personas y fue de gran ayuda para muchas familias, que tomaron nota de los juegos presentados para completar la lista de regalos a Olentzero. En la muestra también se distribuyó el catálogo de productos en euskera, una publicación –también con versión online: www.katalogoa.eus–, impulsada por los Servicios de Euskera locales de Navarra, que recoge los productos culturales dirigidos tanto al público infantil (0-12), como al juvenil (12-16).



Jolas tradizionalak eta euskarazko jostailuak, familientzat erakargarri

'Familia+Euskara' zikloak jolas tradizionalak antolatutako tailerrek oso harrera ona izan dute, bai eta jostailu erakusketak ere, ohikoa baita halakoek arrakasta handia izatea familien artean. Jolas tailerretan, gurasoak seme-alabekin jostetan aritu dira, elkarrekin ikasiz eta arituz eta, batez ere, ederki pasa dute. Euskarazko jostailuen erakusketak, bestalde, ekitaldi klasikoak da Eguberrien aurreko asteetan. Jende aunitzek ikusi du erakusketak eta oso lagungarria izan da familia askorentzat. Izan ere, jostailuei buruzko informazioa jaso dute Olentzerori eskatu beharreko oparien zerrenda osatzeko. Erakusketan, halaber, euskarako produktuen katalogoa banatu da, hots, argitalpen bat da, Nafarroako Euskara Zerbitzuek bultzatua (baita online bertsioan ere: www.katalogoa.eus), haurrentzat (0-12) eta gazteentzat (12-16) dauden euskarazko kultur produktuen berri emateko.

ARTIKA / ARTICA

Larunblai aisialdia lantzeko programa finkatu da



Se afianza el programa de tiempo libre Larunblai

Joan den urrian, Larunblai programaren edizio berria hasi zen, hau da, aisialdia euskaraz lantzeko ekimena. Helburua da haurren arteko harremanak euskaraz izatea eskolatik kanpo, aisialdiko ekintza dibertigarrien bidez, haien artean euskaraz egiteko ohituretan eraginez.

Dereduan ikasten duten Lehen Hezkuntzako 3.-6. mailako haurrei zuzendua dago. Ikasturte honetan, 17 haur ari dira parte hartzen. Bi larunbatetan behin elkartzen dira Artikan, 16:30etik 18:30era.

El pasado mes de octubre arrancó una nueva edición del programa Larunblai, una actividad de tiempo libre que tiene como objetivo conseguir que las niñas y niños participantes conviertan el uso del euskera en un hábito lingüístico más allá de la escuela, todo ello a través de divertidas dinámicas.

El programa está dirigido al alumnado matriculado entre 3º y 6º de Educación Primaria en el modelo D. En concreto, este curso escolar son 17 las niñas y niños que participan en esta iniciativa, juntándose cada dos sábados, de 16:30 a 18:30 en Artica.

BERRIOSUSO / BERRIOGOITI

Ocio infantil en euskera en los pueblos más pequeños



Gracias a la colaboración del Concejo de Berriosuso, este pueblo se ha convertido en la sede de esta dinámica que busca ofrecer un espacio de encuentro a los niños y niñas euskaldunes de los pueblos más pequeños de la Cendea. Durante 2025, quienes cursan entre 3º y 6º de Educación Primaria han tenido la oportunidad de realizar actividades de ocio en euskera gracias al ciclo de “Aisialdia ERE euskaraz” (“Ocio TAMBIÉN en euskera”).

Un sábado al mes la Casa del Concejo de Berriosuso ha acogido talleres de ocio en euskera, en los cuales han participado niñas y niños, especialmente de Berriosuso y Berrioplano.

Entre las actividades que se han propuesto en el último trimestre del año se encuentran una escuela de espías, un taller de magia y un taller de cocina navideña. La media de participantes en cada sesión ha sido de 16 personas. El programa continuará hasta final de curso.

Berriogoitiko Kontzejuaren lankidetzari esker, euskarazko ekitaldiak egingen ari dira herri horretan Zendeako herri txikienetako haur euskaldunentzat, aisialdia euskaraz lantzeko eta elkarren artean ezagutzeko. Izan ere, 2025ean zehar, Lehen Hezkuntzako 3.-6. mailako haurrek euskaraz mintzatzeko aukera izan dute, aisia euskaraz landuz, “Aisialdia ERE euskaraz” zikloari esker.

Hilean larunbat batez, euskarazko aisia tailerrak egin dira Berriogoitiko Kontzeju etxean. Haur gehienak Berriogoitikoak eta Berriobeitikoak izan dira.

Aurtengo azken hiruhilekoan proposatu diren jardueren artean, espioen eskola, magia tailerra eta eguberriko sukaldaritza tailerra egin dira. Saio bakoitzean, bana beste, 16 lagunek parte hartu dute. Programak ikasturtea bukatu arte iraunen du.

LEHIAKETA / CERTAMEN

“Euskara Berriobeiti Zendea” lehiaketa

Aurten ere, Euskara Zerbitzuak “Euskara Berriobeiti Zendea” lehiaketa antolatuko du. Euskarak gure zendearekin duen loturari buruzko galderak egingen dira. Erantzun gehien asmatzen dituenak 150 euroko opari-txartel bat irabaziko du, Iruñeko Karririkiri dendan erabiltzeko. Erantzun zuzenen artean berdinketarik badago, zozketa egingen da. Gehiago jakiteko, sartu udal webean (www.berrioplano.es).

Concurso “El euskara en la Cendea de Berrioplano”

El Servicio de Euskera ha organizado un año más el concurso “El euskara en la Cendea de Berrioplano”, un concurso con preguntas que relacionan el euskera con el municipio de Berrioplano. La persona que acierte más respuestas ganará un bono-regalo de 150 euros para canjear en la tienda Karririkiri de Pamplona. En caso de que se produzca un empate en el número de respuestas acertadas, se realizaría un sorteo. Para saber más, visita la web municipal (www.berrioplano.es).

REPORTAJE ERREPORTAJEA

ÁREA MUNICIPAL DE URBANISMO / HIRIGINTZAKO UDAL ARLOA

Las mesas de **David Azcona** y **Laura Luis** reflejan el volumen de trabajo al que se enfrenta diariamente el área de Urbanismo. Apilados sobre montones, los informes apenas dejan ver un hueco de mesa y las dos pantallas de ordenador que completan el mobiliario acumulan decenas de carpetas de proyectos.

El ritmo frenético del área de Urbanismo es el resultado del enorme crecimiento demográfico del municipio. David lo ha vivido desde el principio. Entró a trabajar en el Ayuntamiento en 1993 y ha sido testigo de todos los cambios urbanísticos. “Cuando llegué, había 700 habitantes y ahora hay casi 8.000. Los polígonos industriales estaban en trámites para ser urbanizados y a principios de los años 2000, se construyeron las piscinas de Berrioplano, la Casa de Cultura y las escuelas infantiles. También se llevaron a cabo las urbanizaciones de Berrioplano y Berriosuso, de Añezkar, de Nuevo Artica-Mogotes... Supuso bastante trabajo, pero ahora tenemos mucho más porque, a pesar de la evolución que ha experimentado la población, el ayuntamiento no ha crecido”.

Entre las obras que le hicieron especial ilusión destaca la construcción de las piscinas de Artica porque “fue un gran proyecto y dio respuesta a una demanda de la población”.

Reparto de tareas

En marzo de 2023, Laura Luis se incorporó al área de Urbanismo. “Nos hemos ido adaptando y nos hemos ido repartiendo las tareas. A mí me tocan las licencias de obras menores, las declaraciones responsables y las inspecciones, entre otros trabajos. Aunque vengo todos los días a la oficina, una vez a la semana visito alguna obra que está en proceso de construcción o realizo una inspección a una nave o local”. Además, mantiene una estrecha colaboración con los responsables de Jardinería y Servicios Múltiples para mantener en perfecto estado el municipio. “Una vez a la semana me reúno con los encargados para organizar la semana y establecer las actuaciones necesarias en función de las prioridades. Ahora, por ejemplo, hemos cerrado el riego en fuentes para evitar que se congelen las tuberías y la colocación de las luces de Navidad”.

Para Laura es su primera vez en el sector público, pero está muy contenta. “Todos los días se aprende algo nuevo”.

Proyectos de futuro

Sobre el futuro, David tiene claro que el proyecto más emblemático de los próximos años será la biblioteca de Nuevo Arti-



¡Atención, OBRAS!

Licencias urbanísticas, inspecciones, control de obras municipales, informes variados, planeamientos urbanísticos... Y así hasta un sinfín de tareas que marcan el día a día del área de Urbanismo.

ca. pero deja claro que no hay que descuidar a los pequeños pueblos. “La idea es no olvidarse de los concejos. Si surgen nuevos focos de población, como el triángulo de Berrioplano, Berriosuso y Aizoáin, con 1.400 viviendas previstas, habrá que dar servicios como el consultorio médico o la reforma del Palacio de Berriosuso”.

Adaptándose a las nuevas tecnologías

Aunque el papel sigue teniendo un gran peso, la tecnología va imponiéndose poco a poco. “Todavía utilizo el papel porque me gusta subrayar y leer bien las medidas de los planos. El papel sigue siendo mi herra-

Kontuz, OBRAK!

Hirigintza-lizentziak, ikuskapenak, udal obren kontrola, denetariko txostenak, hirigintza-planeamenduak... eta hamaika zeregin gehiago, horrelakoa baita Hirigintza arloaren egunerokotasuna.

mienta de trabajo, pero no cabe duda de que el mundo digital ha llegado para quedarse”.

Los últimos avances tecnológicos también se han colado en el Ayuntamiento de Berrioplano y la Inteligencia Artificial empieza a hacerse un hueco en la administración pública. “Hemos empezado a utilizar IA para algunas tareas. Es interesante porque nos ayuda a simplificar y agilizar trámites, pero todavía no conocemos todo su potencial”. Hasta que llegue ese momento, si la IA ayuda a aliviar la carga administrativa, será bienvenida. En este Ayuntamiento trabajo no le va a faltar.



David Azconaren eta **Laura Luisen** ma-haiek ederki erakusten dute zer-nolako lan handiari egin behar dion aurre Hirigintza arloak, egunero. Multzoka pilaturik, txostenek nekez uzten dute ikusten mahai-tarterik, eta dozenaka proiektu-karpeta daude bi ordenagailu-pantailatan metaturik. Hirigintza arloaren erritmo zorabiagarria udalerraren demografia-hazkunde ikaragarriaren ondorioa da. David 1993an Udalean lan egiten hasi eta hirigintzan izaniko aldaketa guztien lekukoa izan da. "Iritsi nintzenez, 700 biztanle ziren eta, orain, ia 8.000. Industrialdeak urbanizatu ahal iza-

teko tramitetan zebiltzan eta, 2000ko hamarkadako lehen urteetan, Berriobeitiko igerilekuak, Kultur Etxea eta Haur Eskolak eraiki ziren. Halaber, Berriobeitiko eta Berriogoitiko urbanizazioak egin ziren, bai eta Añezkarkoa, Artikaberrikoa-Mogotes eta beste ere. Horrek guztiak lan handia eragin zuen, baina orain, are handiagoa dugu, zeren, biztanleriaren bilakaera gorabehera, udala ez baita hazi".

Ilusio berezia eragin zioten obren artean, Artikako igerilekuak nabarmetzen ditu, "proiektu handia izan zelako eta herritarren eskari bati erantzun ziolako".

Zeregin banaketa

2023ko martxoan, Laura Luis Hirigintza arloan hasi zen lanean. "Egokitzen joan gara, bai eta zereginak banatzen ere. Niri obra txikiak lizentziak egokitzen zaizkit, beste lan batzuen artean. Bulegora egunero etortzen banaiz ere, astean behin, eraikitzen ari diren obraren bat bisitatu edota nabe edo lokalak bat ikuskatzen dut". Gainera, lankidetzaren bitartez dihardu Lorategiak eta Zerbitzu Anitzetako arloetako arduradunekin udalerrira egoera ezin hobean mantentzeko. "Astean behin, arduradunekin biltzen naiz astea antolatzeko eta, lehenastun araberako, zer lan egin zehazteko. Orain, adibidez, iturri-ureztapena itxi dugu hodiak ez izozteko, eta Eguberrietako argiak paratzen ari gara".

Laurak lehen aldian du sektore publikoan, baina oso pozik dago: "Egunero ikasten da gauza berriren bat".

Proiektuak aurrera begira

Etorkizunari begira, Davidek argi dauka zein den datozen urteetako proiekturik adierazgarriena, hots, Artikaberriko liburategia, baina argi ere badauka herri txikiak ez direla bazterrean utzi behar. "Ideia da kontzejuez ez ahaztea. Biztanleria gune berriak sortzen badira, hala nola Berriobeiti, Berriogoitiko eta Aitzoain triangulua, zerbitzuak eman beharko dira; adibidez, kontsultategi medikoa edota Berriogoitiko jauregiaren berrikuntza".

Teknologia berrietara egokitu beharra

Paperak oraindik ere pisu handia duen arren, teknologia poliki-poliki zabalitzen ari da. "Oraindik papera erabiltzen dut, gustatzen baitzait planoetako neurriak azpimarratzea eta ongi irakurtzea. Beraz, papera oraindik ere nire tresna da, baina zalantzarik gabe, mundu digitala iritsi eta hemen geldituko da".

Azken aurrerapen teknologikoak Berriobeitiko Udalean ere sartu dira, eta adimen artifiziala hasia da bere lekua egiten administrazio publikoan. "Hasia gara AA erabiltzen zeregin batzuek egiteko. Interesgarria da, lagungarria baitzaitu tramiteak sinpletu eta arintzeko, baina oraindik ere ez dakigu noraino ahala duen".

Une hori iritsi arte, AAK zama administratiboa arintzen laguntzen badu, ongi gertatzen izanen da. Udal honetan ez du lan gutxi izanen, ez horixe.

KULTURA CULTURA

MEDIO AMBIENTE / INGURUMENA



TALLER DE CONSTRUCCIÓN DE REFUGIOS
17 de enero, sábado, a las 11:00 en la sala del Edificio Multiusos de Berrioplano

ITINERARIO NATURAL POR EZKABA
1 de febrero, domingo, a las 11:00 desde el Parque Plazaola

REVISIÓN E INTERPRETACIÓN DE CAJAS NIDO
6 de febrero, viernes, a las 16:00 desde el Parque Plazaola

ATERPEAK ERAIKITZEKO TAILERRA
Urtarrilak 17, larunbata, 11:00etan, Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean

NATURA EZAGUTZEKO IBILBIDEA
Otsailak 1, igandea, 11:00etan, Plazaola parketik

HABIA-KUTXAK BERRIKUSI ETA INTERPRETATZEA SAIOA
Otsailak 6, ostirala, 16:00etan, Plazaola parketik

Aterpeak, actividades medioambientales para el primer trimestre de 2026



Es un proyecto de la Fundación Ilundain que cuenta con la colaboración del Ayuntamiento de Berrioplano

Las personas interesadas en participar deben realizar su inscripción en un formulario al que se accede desde el QR que acompaña esta información o enviando un correo electrónico a: aterpeak@fundacion-ilundain.com

Aterpeak, ingurumenaren aldeko jarduerak 2026ko lehen hiruhilekorako

Ilundain Fundazioaren proiektua da, Berriobeitiko Udalarekin lankidetzan

Hartan parte hartzeko interesa dutenek izena eman behar dute informazio honekin batera dagoen QRko galdetegia betez edo aterpeak@fundacion-ilundain.com helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz.

ZENDEAKO INAUTERIAK / CARNAVAL DE LA CENDEA

Otsailaren 21ean, Berriobeitin

Zendeako herriek mozzorro-jantziez pentsatzen hasi beharko dute. Inautera otsailaren 21ean ospatuko baita, larunbatarekin, eta, beti bezala, uste izatekoa da irudimena eta umore ona ardatz izan direla erraldoiekin batera egingen den karrikadantzan. 12:30ean, pregoia irakurriko da udaletxean. Kalejiraren ondotik, ohi denez, herri bazkaria egingen da eta, arratsaldean, herri bakoitzaren emanaldiaren txanda, dantzaldiaz gainera.



El 21 de febrero en Berrioplano

Los pueblos de la Cendea ya pueden empezar a pensar en sus disfraces. La fiesta de Don Carnal se celebrará el sábado 21 de febrero y, como siempre, se espera que la imaginación y el buen humor protagonicen el pasacalle con los Gigantes. A las 12:30 se leerá en el Ayuntamiento el pregón. Tras la kalejira, se celebrará la tradicional comida popular y, por la tarde, llegarán las esperadas actuaciones de los pueblos y la verbena.

CONCILIACIÓN / KONTZILIAZIOA

Campamentos urbanos de Navidad



Esta Navidad habrá campamento urbano infantil los días 29, 30 y 31 de diciembre y 2 y 5 de enero. En total, 36 niños y niñas se han apuntado a estas actividades lúdicas que buscan fomentar la creatividad y el desarrollo de los y las más txikis, al tiempo que facilitan la conciliación de la vida familiar y laboral.

Los campamentos tienen lugar en el Edificio Multiusos de Berrioplano (actividad en euskera), en la Casa de Cultura María de Maeztu, en Artica (en castellano); y en Artigune 3 de Nuevo Artica (grupo en inglés).

Eguberrietako hiri kanpaldiak

Eguberrietan, haurren hiriko kanpaldi bat egingen da abenduaren 29tik 31ra, eta urtarrilaren 2an eta 5ean. Guztira, 36 haurrek eman dute izena jarduerara jostagarriotan. Helburua da haurren sormena eta garapena sustatzea, gurasoen bizitza eta lana bateragarri egitearekin batera. Euskarazko kanpaldia Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean egingen da; gaztelaniazkoa, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean, eta ingelesezkoa, Artikaberriko Artigune 3n.

BERRIOBITIKO EGUBERRIAK / NAVIDAD EN BERRIOPLANO

Gabonak musikaz eta zernahiz beterik heldu dira

Ikusi egitarau osoa aldizkari honetako agendan (2. orrialdea), udal webean eta udalerrri guztian etxez etxe banatu den paperean.

Berriobeitiko Ametza Abesbatzak eta Tenis Klubeko Abesbatzak elkarrekin eman diote hasiera Zendeako Gabon egitarauari, Rondeau laukotearekin eta Amigos del Plectro taldearekin batera, abenduaren 13an aritu baitira kantari Berriogoitiko elizan, eguberriko kontzertu bat emateko. Errepertorioan, ohiko gabon kantak, bai eta garaikideak ere.

Aurten ere, akordeoi, trikitixa, gaita eta tronpeta soinuek poz eta jai giroz beteko dituzte Zendeako herri guztietako karririk, Eguberriotan antolatutako **kalejirei** esker.

Lehen hitzordua **abenduaren 18koa** izanen da, osteguna, **Orreagako Musika Eskolako** ikasleek prestatu duten kalejiraren eskutik. Aukera ederra izanen da ikasleentz txaranga lehenbiziko aldiz entzuteko. Eskolako trikitilariak eta akordeoilariak ere arituko dira. Oroitu: 19:00etan, Artikan.

Berriobeitiko gaiteroek hiru kalejira egingen dituzte: **abenduaren 26an**, ostiralarekin, Artikan (herrian eta Artikaberrin); **abenduaren 27an**, Añezkar, Larrageta, Lotza, Ballariain, Elkarte eta Oteitzan, eta hilaren **28an** (igandea), Aitzoain, Berriobeiti eta Berriogoitin. Guztiak ere 18:00etan hasita.

Artikako erraldoien konpartsa ere arituko da. Abenduaren 28an (igandea) aterako baita Artikako karriketaren barna, 17:00etatik aurrera. Azken urteotan bezala, **txokolate-jana** egingen da konpartsa-erretxean, 18:30ean.


Bestalde, aurten ere, **María Domínguez Gizarte Etxeak eta Artikako Kontzeju Etxeak jaiotza erakusketa** antolatu dute, Iruñeko jaiotzagileen Elkartearekin elkarlanean. Urtarrilaren 11ra arte egonen da ikusgai.

Umorea eta a capela musika

Eguberriotan ez dezagun galdu **Demode Quartet** taldeak **abenduaren 27rako** (larunbata) prestatu duen gabon kanten ikuskizuna. **Artikako María de Maeztu Kultur Etxean (Artika)** izanen da, eta umorez beteriko errepertorio berria emanen digute, ohiko gabon kantetara aire berriak ekarrita.

Lau taldekideak agertokira igoko dira Eguberrietako saio berezi bat eskaintzeko, gabon kanta ezagunetz eta a capela moldean emanen dituzten beste abesti zenbaitz osatua, beste kultura batzuetako bitxikeriak eta geure kulturakoak ere tartekatuta.

Demode Quartet bikaina da a capela moldeko kantua eta umorea uztartzen, aldi berean baseak edo instrumentuak erabilita. Hamaika ikuskizun sortu ditu 12 urteko ibilbidean, makina bat galatan parte harturik, eta orain arte ehunka saio eta kontzertu eskainirik. 2021ean, musika ikuskizun onenarendako Max saria jaso zuten "Kutsidazu Bidea Ixabel, Musikala" musika ikuskizunagatik.



La Navidad llega cargada de música y mucho más

Consulta el programa completo en la agenda de esta revista (página 2) y en el folleto buzzoneado en todo el municipio.

La **Coral Ametza** de Berrioplano y la coral del Club de Tenis, junto al cuarteto Rondeau y el grupo de Amigos del Plectro, fueron las encargadas de inaugurar la programación navideña de la Cendea con un concierto de Navidad en la iglesia de Berriuso el 13 de diciembre. En el repertorio no faltaron los villancicos clásicos y contemporáneos.

El sonido de acordeones, trikitixas, gaitas y trompetas volverá a llenar de alegría y fiesta las calles de todos los pueblos de la Cendea gracias a las **kalejiras** programadas para estas Navidades.

La primera cita llegará el jueves **18 de diciembre** con la kalejira que ha preparado el alumnado de la **Escuela de música Orreaga**, una buena oportunidad para disfrutar del estreno de su txaranga, que estará acompañada del grupo de trikitixas y acordeones. Toma nota: a las 19:00 en Artica.

Los **gaiteros de Berrioplano** les tomarán el relevo con tres kalejiras: el viernes **26 de diciembre** en Artica (pueblo y Nuevo Artica), el sábado **27**

de diciembre en Añezkar, Larrageta, Loza, Ballariain, Elcarte y Oteiza, y el domingo **28 de diciembre** en Aizoáin, Berrioplano y Berriuso. Todas ellas arrancarán a las 18:00.

Tampoco fallará la **Comparsa de gigantes de Artica**, que saldrá por las calles de Artica el domingo **28 de diciembre** a las 17:00. Al igual que en años anteriores, habrá **chocolatada** en la bajera de la Comparsa a las 18:30.

Por otro lado, un año más, el **Centro Cívico María Domínguez y la Casa del Concejo de Artica** acogerán, en colaboración con la Asociación de Belenistas de Pamplona, una **exposición de belenes**. La muestra permanecerá abierta hasta el 11 de enero.

Humor y música a capela

Estas Navidades no hay que perderse el espectáculo de villancicos que ha preparado la compañía **Demode Quartet** para el sábado **27 de diciembre** en la **Casa de Cultura María de Maeztu (Artica)**, un repertorio novedoso y lleno de humor que aporta nuevos aires al villancico tradicional.

Los cuatro componentes del grupo se subirán al escenario para ofrecer un especial de Navidad con villancicos populares y otras canciones a capela en una función que intercalará anécdotas navideñas de otras culturas y de la nuestra propia.

Demode Quartet mezcla el canto a capela y el humor, con bases o con instrumentos. Ha producido once espectáculos en sus 12 años de trayectoria y ha participado en decenas de galas, con cientos de funciones y conciertos ofrecidos hasta la fecha. En 2021 recibieron el Premio Max al mejor espectáculo musical por "Kutsidazu Bidea Ixabel, Musikala".

KULTURA CULTURA

BIBLIOTECA PÚBLICA / LIBURUTEGI PUBLIKOIA

Avance de la programación

La programación de la Biblioteca Pública de Berrioplano de 2026 comenzará en enero con una **exposición sobre la crisis humanitaria de Palestina y una charla o actividad** relacionada con el tema. En febrero, las protagonistas serán las bibliotecas de los **campamentos de refugiados del Sáhara**. Para conocer su funcionamiento y su oferta de libros se realizará una **exposición y se organizará una actividad**.

En febrero y marzo continuarán los **cursos para enseñar a utilizar el móvil** "La vida moderna" y de enero a marzo habrá sesiones de **juegos de mesa** una vez al mes.

Más información, en las redes municipales (canal de WhatsApp, Instagram, Facebook), en la web municipal y en la agenda en papel que llega a tu buzón.

Programazio aurrerapena

Dena prest dago Berriobeitiko Liburutegi Publikoan 2026ko egitarauari ekiteko. Urtarrilean bertan, **erakusketa** bat jarriko dute ikusgai **Palestinako giza krisiari buruz**, bai **eta** gaiari loturiko **solasaldi** bat ere. Otsailean, **Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako** liburutegiak izanen dira hizpide. Horrela, liburutegi horien jarduna eta liburu eskaintza ezagutzeko asmoz, **erakusketa** bat **eta jarduera** bat egingen dira.

Otsail eta martxoan ere "bizitza modernoa" izeneko **ikastaroa** egingen da **mugikorra erabiltzen erakusteko** eta, urtarriletik martxora, **mahai-jokoak** erakusteko saioak, hilean behin.

Argibideak, udal sareetan (WhatsApp kanala, Instagram, Facebook), udal webean eta postontzira iritsiko zaizun paperezko agendan.



URTEKO JAIA / FIESTA ANUAL



Kintoak mahai inguruan, besta giroan

Aurten ere, Aitzoain, Berriogoiti, Berriobeiti, Lotza eta Oteitzako 48/49/50eko kintoek, ohi dutenez, urte akaberako bazkaria egin dute: zehazki, joan den azaroaren 22an elkartu ziren, Iruñeko Mercao jatetxean. Argazkian, eskuinetik hasita: Rufina Babace, Oteitzakoa; Lourdes Ilundáin eta Vitori Lázcoz, Berriobeitikoak; Rosa M^a Viguria, Lotzakoa; Javier eta Manuel Pascal, Berriobeitikoak. Ezkerretik: Aurea Aldave, Berriobeitikoak; Jesús Izquieta, Aitzoaingoak; Paco Jáuregui eta Inés Esquiroz, Berriogoitikoak; eta Alicia Amezaray, Berriobeitikoak.

Quintos de celebración en torno a una mesa

Un año más, los quintos del 48/49/50 de Aizoáin, Berrioso, Berrioplano, Loza y Oteiza celebraron su tradicional comida de fin de año. El encuentro fue el pasado 22 de noviembre en el restaurante Mercao de Pamplona. En la foto, desde la derecha: Rufina Babace, de Oteiza; Lourdes Ilundáin y Vitori Lázcoz, de Berrioplano; Rosa M^a Viguria, de Loza; Javier y Manuel Pascal, de Berrioplano. Desde la izquierda: Aurea Aldave de Berrioplano, Jesús Izquieta de Aizoáin, Paco Jáuregui e Inés Esquiroz, de Berrioso; y Alicia Amezaray, de Berrioplano.

MUSIKA ESKOLA / ESCUELA DE MÚSICA

Eguberriak eta truke kontzertua



Urtero ohi duenez, Orreaga Musika Eskolak entzunaldiak eta kontzertuak eskainiko ditu abenduaren 15etik 19ra, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean. Sarrera libre da. Bestalde, udaberriko ohiko truke kontzertua martxoaren 27an egingen da, ostiralarekin, 20:00etan, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean. Oraingoan, Agoizko Banda gonbidatu dute. [Programazioa eskolako webgunean duzu kontsultagai.](#)

Navidad e intercambio

Fiel a su cita navideña, la Escuela de Música Orreaga ofrecerá audiciones y conciertos la semana del 15 de diciembre al 19 de diciembre en la Casa de Cultura María de Maeztu (Artica). La entrada es libre. El tradicional concierto de intercambio de primavera será el viernes 27 de marzo a las 20:00 en la Casa de Cultura de Cultura María de Maeztu (Artica). La agrupación invitada será la Banda de Aoiz. [Consulta la programación en el web de la escuela.](#)

ARTICA / ARTIKA



Décimo aniversario de la Comparsa

La Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) acogió el pasado 15 de noviembre un acto para celebrar el décimo aniversario de la Comparsa de Gigantes y Cabezudos de Artica. En el evento, la comparsa estuvo acompañada por Bizi Alai Dantza Taldea.

Konpartsaren hamargarren urtemuga

Artikako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldia Artikako María de Maeztu Kultur Etxean egin zen, joan den azaroaren 15ean. Konpartsarekin batera, Bizi Alai Dantza Taldea aritu zen.

PRIMER TRIMESTRE EN LA CASA DE CULTURA / LEHEN HIRUHILEKOA KULTUR ETXEAN

Citas en el teatro para pensar, soñar y reír

El área de Cultura ha programado dos espectáculos infantiles y dos para personas adultas

La Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) acogerá en el primer trimestre de 2026 varios espectáculos para el público adulto e infantil. La primera cita llegará el sábado **24 de enero** de la mano de Txalo Producciones con "Arizona", un montaje que reflexiona sobre las fronteras, la migración, la estupidez humana y los límites de su manipulación. Sus protagonistas, Aitziber Garmendia y Jon Plazaola, nos sumergirán en un trágico retrato del alma de dos seres humanos perdidos en el desierto de la vida.

El domingo **8 de febrero** los txikis podrán disfrutar del espectáculo en euskera de Amezte Teatro "Kay Robot". Una festiva y soñadora comedia de títeres sobre la tiranía de la hipertecnología.

También el **1 de marzo** el público infantil será el destinatario de la propuesta de Producciones Maestras "Amares...amar los mares", con la vieja pirata Pepa "The bottle", amante de los mares y defensora de la naturaleza, como la narradora principal de sus trepidantes travesías por los cinco continentes.

El sábado **21 de marzo** llegará a Artica "El peor espectáculo del mundo... de momento", de Zanguango Teatro. Un delirante biopic protagonizado por un héroe de barrio que retrata a quienes intentan ser alguien, pero, al final, su vida es como la de los conejos, que saltan de mata en mata sin dejar rastro y, al mirar atrás, sólo ven el miedo a las escopetas.



Antzokiko hitzorduak: pentsatzeko, amesteko eta irri egiteko

Kultura arloak bi ikuskizun ekarriko ditu haurrendako, eta beste bi, helduendako

Helduendako eta haurrendako hainbat ikuskizun emanen dira Artikako María de Maeztu Kultur Etxean, 2026ko lehen hiruhilekoan. Lehen saioa **urtarrilaren 24an** izanen da, Txalo Producciones taldeak "Arizona" taularatuko baitu, hau da, mugez, migrazioaz, giza ergelkeriaz eta manipulazioaren mugez gogoeta egiten duen antzezlan. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola antzezleek, izan ere, bizitzaren basamortuan galduetako bi gizakiren arimaren erretratu tragikomikoan barneratuko gaituzte. **Otsailaren 8an**, igandea, haurrek Amezte Teatro taldearen "Kay Robot" euskarazko ikuskizuna gozatuko dute. Jai giroko txotxongilo komedia amesleria da hiperteknologiaren tiraniaz.

Martxoaren 1ean, bestalde, Producciones Maestras taldeak "Amares...amar los mares" haur lana emanen du. Kontalari nagusia Pepa "The bottle" pirata zaharra da, itsasoan maitalea eta natura zalea, eta hark aletuko ditu bost kontinenteetan barrena egiten dituen bidaiak zorabiarriak.

Martxoaren 21ean (larunbata), Zanguango Teatro-ren "El peor espectáculo del mundo... de momento" ikuskizuna iritsiko da Artikara. Biopic eroa da, auzoko heroi batek protagonizatua; zerbait izaten saiatzen diren erretratua egiten du, baina, azkenean, haien bizitza untxiena bezalakoa da, hau da, sasiz sasiz jautzita aztarnarik utzi gabe baitabilta eta, atzera begiratzean, eskopetekiko beldurra baik ez dute ikusten.

EUSKARAZKO DOKUMENTALA / DOCUMENTAL EN EUSKERA

Bularreko minbizia ikustarazteko eta hartaz sentsibilizatzeke

Minbiziaren aurkako Mundu Eguna dela eta, **2zi elkartearen "Bularretik ehundutako aitortzak"** dokumentala emanen da Artikako María de Maeztu Kultur Etxean, **otsailaren 6an**, ostiralarekin, 19:00etan hasita.

Amaita Iparragirrek zuzendua, ikus-entzunezkoak bularreko minbizi metastasikoan pausatuta begirada. Bularreko minbizia pairatu duten eta pairatzen ari diren Leitzako bost emakumeren testigantzak jaso dira, haien inguruko lekukotasunekin eta mediku espezialisten iritziekin batera. Kontakizunak errealitate hori ikustarazi, eta hartaz sentsibilizatu eta kontzientziatu nahi du jendea. Horrez gain, minbiziak jota dauden pertsonak ahalduntzeko mezua zabaldu nahi du, eta biltzen den dirua bularreko minbizi metastasikoaren inguruko ikerketara bideratuko da.



Sensibilizar y visibilizar el cáncer de mama

Con motivo del Día Mundial del Cáncer, la Casa de Cultura María de Maeztu (Artica) acogerá el viernes **6 de febrero** a las 19:00 la proyección del documental en euskera de la **asociación 2zi: "Bularretik ehundutako aitortzak"**. Dirigido por **Amaita Iparragirre**, se trata de un trabajo audiovisual que pone el foco en el cáncer de mama metastásico.

El documental narra el proceso de cinco mujeres que han sufrido y sufren la enfermedad, y recoge también los testimonios de familiares y de especialistas médicos. El filme busca visibilizar, sensibilizar y concienciar sobre esta realidad, además de difundir un mensaje de empoderamiento de las personas afectadas y de contribuir, con lo que recaude la proyección, a la investigación sobre el cáncer de mama metastásico.

BERRIOBEITIKO BIDEAK CAMINOS DE BERRIOPLANO




Ibilaldi biribila Ezkidi / Añezkarko Haitzera, Larragetatik

Larragetako plazatik, Iturriko mendixka izeneko lekura jo eta, handik, gailurrera joanen gara. Han, antena bat dago. Pixka bat behera joanen gara igoyeraren kontrako norabidean, Ezkidi edo Añezkarko Haitzaren eta gure artean dagoen lepoko galsoroa gurutzatzeko.

Mendi-lepoan, elkarzut gurutzatzen duen bide belartsu bat topatu eta hartan barna jarraituko dugu ezkerretarantz (N), harik eta N-240-A errepidea jo arte. Asfaltoa zapaldu gabe, eskuinera jo eta Ezkidi mendiaren mendebaldeko magalaren azpian doan bide belartsua hartuko dugu, harik eta Añezkartik gora doan hartara iritsi arte. Bide horrek Añezkarko edo Ezkidi gailurrera eramaten gaitu.

Igoeran erabilitako bidea utzi eta Añezkarko hilerriraino jaisten den bidexka hartuko dugu. Handik, zementuzko pista hartu eta herriraino joanen gara. Gero, pilotaleku ondoko errepidetik aterako gara Añezkartik eta aurrera joko dugu N-240-A errepidera iritsi arte. Leku horretan eta, asfaltoan ez sartzeko, galsoroen artean doan Zakurrozko bide zabala hartu eta AP-15 gainditzen duen zubira iritsiko gara.

Zubia gurutzatu, eskuinetik (N) jaitsi, autopistaren ondotik doan pista hartu eta huraxe gurutzatzen duen errepide mehar asfaltatu bat topatuko dugu. Eskuinetik hartu (N) eta, berriz ere AP-15a gainditzen duen zubipetik igaro eta gero, gure abialekura iritsiko gara, Larrageta, alegia.



DISTANCIA / LUZERA: 9,47 km
DESNIVEL / DESNIBELA: 245 m
DIFICULTAD / ZAILTASUNA:
baja / txikia

Circular a Ezkidi / Peña Añezkar desde Larragueta

Desde la plaza de Larragueta, tomamos la pista que va al Cerro de la Fuente hasta llegar a la cumbre, donde hay una antena. Perdemos altura en dirección opuesta a la de ascenso para atravesar el campo de cereal que ocupa el collado que nos separa de Ezkidi o Peña de Añezkar.

En este cuello nos topamos con un herboso camino que cruza perpendicularmente, por el que continuaremos hacia la izquierda (N) hasta alcanzar la carretera N-240-A. Sin pisar el asfalto, tomaremos por la derecha (SE) otro herboso camino que discurre bajo la ladera occidental de Ezkidi hasta que alcanza el que asciende desde Añezkar y que nos lleva a la cumbre de Añezkar o Ezkidi. Dejamos el camino utilizado a la subida y tomamos la senda que desciende hasta el cementerio de Añezkar, desde el que tomamos una pista cementada

hasta el casco urbano. Abandonamos Añezkar por la carretera que deja a su paso el frontón, desde donde continuamos hasta alcanzar nuevamente la carretera N-240-A. En este punto y para evitar el asfalto, tomamos el Camino de Zakurroz, amplia pista que discurre entre campos de cereal y que termina dando alcance al puente que salva la AP-15.

Atravesaremos el puente para descender por la derecha (N) hasta alcanzar la pista que discurre paralela a la citada autopista por la izquierda (W) y que nos llevará a toparnos con un estrecho carretil asfaltado que cruza perpendicularmente. Lo tomaremos por la derecha (N) para, tras cruzar bajo el puente que salva de nuevo la AP-15, desembocar en el punto de partida, Larragueta.

VIDA SALUDABLE / BIZITZA OSASUNGARRIA

El programa de paseos saludables vuelve en febrero

Tras un pequeño parón, los paseos saludables regresarán en febrero y lo harán en el mismo formato que en ediciones anteriores, con salidas dos viernes al mes (el primer y tercer viernes de cada mes). Tanto en febrero como en marzo las citas serán los días 6 y 20. Toda la programación con las fechas y los puntos de salida estarán disponibles próximamente en la web municipal y en redes sociales. La dinámica sigue siendo la misma. No es necesario apuntarse, solo hay que aparecer en el lugar indicado a las 10:00. Es recomendable llevar bastones de nordicwalking, pero el programa dispone también de un servicio de préstamo.

Los paseos saludables se realizan por diferentes lugares de la Cendea y mezclan ejercicios de pilates y estiramientos. Son gratuitos y tienen una duración de entre una y dos horas como máximo, según el recorrido.



Ibilaldi osasungarrien programa otsailean itzuliko da

Geldialdi labur baten ondotik, ibilaldi osasungarriak otsailean itzuliko dira, orain arte izan duten molde berean, hau da, hilean bi ostiraletan (hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren ostiraletan). Otsailean eta martxoan, hilaren 6an eta 20an aterako dira. Ibilaldiak noiz eta nondik abiatuko diren jakinaraziko da sarri udalaren webgunean eta sare sozialetan.

Ez da aldaketarik izanen funtzionamenduan; horrenbestez, 10:00etan agertu behar da kasuan kasuko abialekuan. Gomendagarria da nordicwalking makilak eramatea, baina programak mailegu zerbitzua dauka. Ibilaldi osasungarriak Zendeako hainbat lekutan barna egiten dira, pilates ariketak nahiz luzapenak ere tartekatuta. Doakoak dira eta gehienez ordubete edo bi ordu inguruko iraupena dute, ibilaldiaren arabera.

Ilarraka *Erica vagans*

Otros nombres: txilar, ainar (eu), brezo (es)

Arbusto muy ramificado, perenne, generalmente de menos de 1 m de altura, pero casi siempre con las ramas caídas por el suelo. Las hojas de 6 a 11 mm, parecen lineares, pero con bordes enrollados. Se disponen en grupos de 4-5 rodeando el tallo. Las flores, de forma globosa, pequeñas, de entre 5,5 a 7,7 mm, forman grupos que pueden ser muy densos, casi al final de las ramas, normalmente bajo un penacho de hojas; y no cuelgan cayendo hacia el suelo. Su color varía del blanco sucio a un rosa o lila suave. Tanto las anteras como el estilo salen claramente al exterior. Florecen de junio a octubre, y permanecen después de la fructificación.

Distribución: Europa occidental, pero es especialmente frecuente en la Cornisa Cantábrica y el SW de Francia. En Navarra es el brezo más abundante, prefiriendo la mitad norte.

Hábitat: forma brezales y acompaña al matorral de sustitución de los bosques. Es el único de nuestros brezos que vive sobre suelos calizos. Podemos encontrarlo desde el nivel del mar hasta muy por encima de los 1000 m.

Comportamiento: acomodadizo; prefiere los suelos abiertos y se asocia al matorral de la degradación de los bosques de nuestra zona.

Usos: en jardinería por su robustez. Es una de las bases de la llamada "miel de brezo".

Texto y fotografía: Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti

Ilarraka *Erica vagans*

Beste izen batzuk: txilar burusoila, ainar burusoila (eu), brezo

(es)



Zuhaixka oso adarkatua da, iraunkorra,, metro bateko altuera hartzen ez duena, baina ia beti adarrak lurrean zehar ditu eroriak. Hostoak 6 - 11 mm-koak dira eta linealak dirudite baina ertzak biribilkatuak dituzte. 4-5eko multzotan daude zurtoinarengatik inguruan antolatuta. Loreek puxika-itxura dute eta txikiak dira, 5,5 - 7,7 mm-koak; oso trinkoak izan daitezkeen multzoak osatzen dituzte, ia adarren bukaeran, gehienbat hosto-koma baten azpian; eta ez daude zintzilik lurrerantz erorita. Kolorez, zuri zikinetik arrosa edo lila leun batera doaz. Hala anterak nola estiloa nabarmen ateratzen dira kanporantz. Ekainetik urrira loratu eta fruitu eman ondoren ere badiraute.

Banaketa: Mendebaldeko Europa, baina bereziki da ohikoa Kantauriko erlaitzean eta Frantziako hego-mendebaldean. Nafarroan txilarrak ugariena da eta iparraldeko erdia du gogoko.

Habitata: txilardiak osatzen ditu eta oihanen ordezkapeneko sasietan hazten da. Kareharrizko lurzoruetan bizi den hemengo txilar bakarra da. Itsas mailatik 1.000 metrotik oso gora dauden bazterretara bitarte hazten da.

Portaera: moldakorra; lurzoruri irekiak ditu gogoko, eta gure inguruko oihanen degradazioko sasietan dago lotua.

Erabilera: lorezaintzan erabiltzen da, sendoa baita. "Txilar ezitia" izenekoaren oinarrietako bat da.

Testua eta argazkia: Gorosti Natur Zientzi Elkarte

Dónde encontrarla: prefiere espacios abiertos y soleados, en Berrioplano es muy abundante y frecuente creciendo en eriales y pastos, así como los matorrales de las zonas fuera de los cultivos, bordes de los bosques y plantaciones arbóreas.

Curiosidades: Erica es un género con unas 860 especies, de las cuales sólo 80 viven fuera del cono sur de África. En el entorno ibérico viven 14, mientras que en Navarra se conocen 7. Las características de la flor la hacen fácilmente reconocible frente a las demás especies de brezos silvestres. Los brezales se asocian a algunas especies de hongos con valor culinario. En jardinería se usa la expresión "tierra de brezo".

Añezkarko eta Artikako pilotalekuak erreserbatzeko kudeaketa

Añezkarko pilotalekuari buruzko informazioan, aldizkariaren 77. alean ateratakoan, oker bat dago erabileran eta erreserben kudeaketan. Añezkarko udal pilotalekua egunero dago zabalik 9:00etatik 22:00etara. Larunbat arratsalde, igandez eta jaiegunetan, Berriobeitiko Udalean eroldatutakoek bakarrik erabil dezakete, salbu Udalak baimen berezia ematen badu. Erreserbak udal bulegoetan egin behar dira, dela aurrez aurre, dela Udaleko 948303129 zenbakira deituz (luzapena: 7, kontzejua), 9:00etatik 14:00etara, erreserba aurreko astelehenean ostegunera bitarte. Ostiral goiz guztietan, albienteak asteko erreserben orria paratuko du pilotalekuko arasan. Erreserba orduka egiten da, gehienez 2 ordu astean.

Artikako kontzejua, bestalde, erreserbak online egiteko zerbitzu bat jarri du abian. Aplikazio bat da, pilotalekuaren erreserba mugikorren bidez kudeatzeko. Lehen erreserbaren tarifa eroldatuarena izanen da beti. Ondokoetan, egungo egoerara egokituko da, Artikako eroldarekin bat (6 € eroldatuendako, eta 14, ez eroldatuendako. Argibideak: www.concejodeartica.es.

www.concejodeartica.es.



Gestión de reservas en los frontones de Añezkar y Artica

La información sobre el frontón de Añezkar del número 77 de la revista contiene un error relativo al uso y gestión de reservas. El frontón municipal de Añezkar permanece abierto todos los días desde las 9:00 hasta las 22:00. Los sábados por la tarde, domingos y festivos el uso del frontón es exclusivo de personas empadronadas en el Ayuntamiento de Berrioplano, salvo autorización especial del Ayuntamiento.

En cuanto a la gestión de reservas, se efectuarán en las oficinas municipales. Bien de manera presencial o a través del teléfono del Ayuntamiento 948303129 (ext. 7 Concejos) en horario de 9:00 a 14:00 de lunes al jueves anterior a la reserva. Cada viernes por la mañana el alguacil colocará en la vitrina del frontón la hoja con las reservas de la semana. La reserva será por horas completas, máximo 2 horas semanales.

Por su parte, el concejo de Artica ha habilitado un servicio de gestión de reservas on line. Se trata de una aplicación que permite gestionar la reserva del frontón desde el móvil. La tarifa de la primera reserva será, por defecto, de persona empadronada. En las sucesivas se ajustará al estado actual en el padrón de Artica (6 € para personas empadronadas y 14 para no empadronadas. Más información en www.concejodeartica.es.



**NAVIDAD
EN LA CENDEA**



**EGUBERRIAK
ZENDEAN**

